

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko urtarrilaren 26tik otsailaren 1era.**

## I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

### Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/02/01

- 2019ko urtarrilaren 15eko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den gizarte-ekintza eta esku-hartzearen sektoreari dagokion Estatuko Hitzarmen Kolektiboaren 2018, 2019, 2020 eta 2021. urteetarako soldata-taulei buruzko Akordioaren Akta. [2019-1327 xedapena - 7 or.](#)

## II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

### E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

#### 2019/01/26

- **ESTATU BURUZAGITZA. - Premiazko neurriak.** - Urtarrilaren 25eko 2/2019 Errege Lege-dekretua, zeinaren bitartez hartzen diren premiazko neurriak ekaitzek eta beste egoera katastrofiko batzuek eragindako kalteak arintzeko. [Disposición 2019-960 - 11 págs.](#)
- **LAN, MIGRAZIO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. - Gizarte Segurantza.** - 2019ko urtarrilaren 23ko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, zeinaren bitartez baimena ematen den Nekazaritzan Besteren Kontura diharduten Langileentzako Sistema Berezia -Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean ezarria- sartuta dauden langileei kuoten ordainketa atzeratzeko, 2019ko urtariletik apirilera jarduerarik gabe dauden denboraldietan. [Disposición 2019-963 - 1 pág.](#)

2019/01/29

- **GORTE NAGUSIAK**

- **Enplegatu publikoak. Ordainsariak.** - 2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpena, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitaratzea abenduaren 21eko 25/2018 Errege Lege-dekretuaren Baliozkotze Hitzarmena, hain zuzen ere, sektore publikoaren esparruan eta ordainsarien alorrean premiazko neurriak onartzen dituen. **2019-1053 xedapena - 1 or.**
- **Zergen alorreko neurriak. Katastroa.** - 2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpena, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitaratzea abenduaren 28ko 27/2018 Errege Lege-dekretuaren Baliozkotze Hitzarmena, hain zuzen ere, zergen eta katastroaren alorrean neurri zehatzak hartzen dituen. **2019-1054 xapena - 1 or.**
- **Premiazko neurriak.** - 2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpena, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitaratzea abenduaren 21eko 23/2018 Errege Lege-dekretuaren Baliozkotze Hitzarmena, hain zuzen ere, marken alorreko, trenbide bidezko garraioaren eta bidaiak konbinatuen eta bidaiak zerbitzu lotuen alorreko zuzentzaruen transposizioei buruzkoa. **2019-1055 xedapena - 1 or.**
- 2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpena, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitaratzea abenduaren 28ko 28/2018 Errege Lege-dekretuaren Baliozkotze Hitzarmena, pentsio publikoen balioa handitzeari eta gizartearen, lanaren eta enpleguaren alorrean premiazko beste neurri batzuei buruzkoa. **2019-1057 xedapena - 1 or.**
- **Ikatz meatzaritza.** - 2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpena, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den abenduaren 21eko 25/2018 Errege Lege-dekretua, ikatz meatzaritzaren trantsizio justua lortzeko eta meatzari eskualdeak iraunkortasunez garatzeko premiazko neurriei buruzkoa. **2019-1058 xedapena - 1 or.**

- **Finantza-sistema.** - 2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpena, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den abenduaren 14ko 22/2018 Errege Lege-dekretuaren Baliozkotze Hitzarmena argitaratzea, hain zuzen ere, tresna makroprudentialak ezartzen dituen. **2019-1059 xedapena - 1 or.**

## 2019/01/30

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. – Antolamendua.** - Urtarrilaren 22ko JUS/57/2019 Agindua, bitartekaritzarako Foroa sortzen duena. **2019-1104 xedapena - 3 or.**

## 2019/01/31

- **LAN, MIGRAZIO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. - Premiazko neurriak. –**
  - Urtarrilaren 28ko TMS/61/2019 Agindua, zeinaren bitartez ematen diren lanaren eta Gizarte Segurantzaren alorrean aplikatzeko neurriak, hain zuzen ere, 2018ko urriaren 19ko Ministro Kontseiluaren Akordioan adierazitakoak. Akordio horren arabera, Illes Balears Autonomia Erkidegoko Artà, Capdepera, Manacor, SantLlorenç des Cardassar eta Son Servera udalak "babes zibileko larrialdi batek larri eragindako eremu" adierazi ziren, urriaren 9ko uholde-eurien eta uharren gainezkatzeen ondorioz. **2019-1146 xedapena - 6 or.**
  - Urtarrilaren 28ko TMS/62/2019 Agindua, zeinaren bitartez ematen diren lanaren eta Gizarte Segurantzaren alorrean aplikatzeko neurriak, hain zuzen ere, 2018ko azaroaren 2ko Ministro Kontseiluaren Akordioan Adierazitakoak. Akordio horretan Málaga, Sevilla, Cádiz, Valentzia, Castelló, Tarragona, Teruel probintziak eta Illes Balears Autonomia Erkidegoa "babes zibileko larrialdi batek larri eragindako eremu" adierazi zirebn, urriaren 18, 19, 20 eta 21eko uholde-eurien eta uharren gainezkatzeen ondorioz. **2019-1147 xedapena - 6 or.**

2019/02/01

- **LAN, MIGRAZIO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA.** - Laneko hitzarmen kolektiboak. - 2019ko urtarrilaren 15eko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den gizarte-ekintza eta esku-hartzearen sektoreari dagokion Estatuko Hitzarmen Kolektiboaren 2018, 2019, 2020 eta 2021. urteetarako soldata-taulei buruzko Akordioaren Akta. [2019-1327 xedapena](#) - 7 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2019/01/28

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** - Bizkaiko Batzar Nagusien ERABAKIA, zeinaren bidez berresten baita 3/2018 Foru Dekretu Arauemailea, urriaren 9koa, foru-arau hauek aldatzen dituen: 7/1994 Foru Araua, azaroaren 9koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa; 7/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, Joko-jardueren gaineko Zergari buruzkoa; 5/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, Berotegi-efektuko Gas Fluordunen gaineko Zergari buruzkoa, eta 12/2013 Foru Araua, abenduaren 5koa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoa. [1 or.](#)
- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 144/2019 FORU AGINDUA, urtarrilaren 17koa, martxoaren 31ko 632/2017 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez, 289 eredia onesten da, elkarri eman beharreko laguntzaren esparruan finantza-kontuei buruz urtero egin beharreko aitopen informatiboa egiteko dena. [4 or.](#)

## G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

**2019/01/29**

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - **Akats zuzenketa.** 7/2018 Foru Araua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen. 261 xedapena - 1 or.

**2019/01/30**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 1/2019 Foru Dekretua, urtarrilaren 29koa, jabetza intelektualetik datozen kapital higigarriaren etekinei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aplikagarri zaien atxikipen tasa eta konturako sarrera murrizten duena. 524 xedapena 2 or.

## E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

**Kepa Bilbao Zubiaur**

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO